

Urriak 4 (arratsalde) - Erailketa Erdi Aroko merkatuan (street scape)

Erailketa Erdi Aroko merkatuan (street scape)

Gasteizko Erdi Aroko hirigunea

2024ko urriaren 4a, 15:00etatik 20:00etara (biak barne)

15:30etatik 20:00etara (biak barne)

Txandak 10 minuturo



laz izan zuen arrakasta kontuan izanda berriz dakarkizuegu: Erailketa Erdi Aroko merkatuan

Hiriaren bihotzak hilketa nola gertatu den ikusi du, eta zuk hori argitzen lagundu dezakezu. Zure zuhertasuna izango dugu? Parte hartzaileek gure hirigune historiko maiteko kaleetan zehar gertatutakoa ikertu beharko dute. Asmakizunez eta pista-bilaketaz betetako bidaia honek ez du inor ase gabe utziko, ziur.

Parte hartzeko baldintzak

GARRANTZITSUA: Jarduera honetan izena emateak parte hartzeko baldintza hauek onartzea dakar:

- **Talde bereko gutxienez 3 eta gehienez 6 parte-hartzailerentzat** pentsatuta dago jarduera.
- Talde bakoitzak ordutegi bat aukera dezake, eta inprimaki horretan izena eman duten pertsonak baino ez dute parte hartuko.
- Izena eman ez duten jokalariek ezin izango dute jardueran parte hartu.
GARRANTZITSUA: Antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango alde aurretik izena eman ez duten jokalarien gain.
- Taldeko jokalarien buruak adinez nagusia izan behar du.
- Ez da ordutegi edo txanda aldaketarik onartuko.
- Parte hartzeko gutxieneko adina 8 urtekoa da.
- Zatozte hasiera ordua baino 5 minutu lehenago, jarduera ez atzeratzeko. Ezarritako orduan iristen ez diren taldeei ez diegu itzarongo.
- Joka ezazue, une oro, aktoreekiko, beste parte-hartzaile batzuekiko eta antolatzaileekiko errespetuz, goza ezazue jolasaz.

Izen-emateak

Doako esperientzia honetaz gaztelaniaz (cast) eta euskaraz (eusk) gozatzeko aukera izango duzu.

Street escape-ak **ordu eta erdikoiraupena** izango du burutzeko, eta kasu jakin batzuetan luzatu egin daiteke, zirkunstantzia bereziak direla eta.

Eman izena inprimaki hauetan, ez zaitez esperientzia hori bizi barik geratu!

IZEN-EMATEAK AGORTUTA